



# Biodibertsitatea: gure altxorrik preziatuena

Dibertsitateak aniztasuna adierazten du; askotasuna, barietatea, desberdintasuna, ugaritasuna edo uniformetasun eza. Biodibertsitatea, ondorioz, izadian dauden elementuen aniztasuna da. Baina ez soilik elementuen aniztasuna, baita funtzio, egitura, tamaina edota egoera dibertsitatea ere. Biodibertsitatea, batik bat, izaki bizidunen konbinazio genetikoen aniztasuna eta aberastasuna adierazten du. Biodibertsitatea errespetatzeko, aintzat hartzeko eta bere balioa aztertzeko ezinbesteko baldintza da ondo ulertu eta ezagutzea.

## HELBURUAK

- Biodibertsitatearen kontzeptua ulertzea eta nola neurtzen den ikastea.
- Biodibertsitatearen zainketaren garrantzia ezagutzea.

## GAI HONEKIN ZERIKUSIA DUTEN ARLOAK:

- Natur Zientziak

## JARDUERAREN GARAPENA

### 1-Zer da biodibertsitatea?

Ziurrenik asper-asper eginda egongo zara biodibertsitate hitza entzuteaz. Baina, seguru al zaude hitz honen esanahia ondo ezagutzen duzula?

Adierazi gurutze batez hautatutako aukerak:

Biodibertistatea...


- Espezie baten barruan dagoen indibiduo aniztasuna da.
- Izaki bizidunen komunitate batean dagoen espezie aniztasuna da.
- Ingurune batean dagoen ekosistema aniztasuna da.

Aurreko edozein erantzun, edo denak batera.

Hau da nahastea hau! Ongi da, adi egon, "biodibertsitatea"-k zera esan nahi du:



...espezie bateko indibiduo aniztasuna, eta/edo...



... organismo bizidunen komunitate batean dagoen espezie aniztasuna, eta/edo...



...landareak eta animaliok bizi gareneko habitat aniztasuna da.

2-Nola neurtzen da biodibertsitatea?

Toki bateko biodibertsitatea neurtzeko modurik errazena bertan bizi den espezie kopurua, hau da, espezie aberastasuna zenbatzea, eta toki horren azaleraren artean zatitzea da. Modu honetan, azalera ezberdineko bi lurraldeen biodibertsitateak alderatu ahal izango ditugu.

a) Ikus dezagun adibide bat: bi ikerlari talde Valderejo Natur Parkeko belardietan bizi diren kakalardo espezieak aztertzen ari dira. A taldeak altuera desberdinetan dauden hiru belardietan hartu ditu laginak. Emaitzak 1:1.000 eskalako eskema batean aurkezten dira. Zure ustez, hiruretatik zeinek du espezie aberastasun handiena? Eta biodibertsitate handiena? Zergatik?



b) B taldeak altuera berdinean dauden hiru belardietan burutu ditu bere ikerkuntzak, ondoko emaitzak lortuz:

Zein belarditan dago aniztasun biologiko handiena? Zergatik?

							Guztira
Belardi 1	3	11	1	1	3	3	22
Belardi 2	3	4	5	3	2	4	21
Belardi 3	2	3	8	1	1	8	23

Erantzun zuzena: Bigarren belardia

3- Zergatik da hain garrantzitsua biodibertsitatea zaintzea?

Ikasgelako lagun guztiei bururatzeko zaizkizuen arrazoiak aipa itzazue. Ondoren, aipatu ideia horiek eztabaidatu eta baliozta itzazue; zuen iritzien argudioak azaldu, horien adierazgarri diren adibideak bilatuz.